

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1641

335/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, Juan Luis Sánchez González de Matauco jauna Arabako Errioxa - Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatzeko eta zerbitzu berezietan deklaratzeko.

Aztertu dugu Arabako Errioxa - Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urtarrilaren 25eko 68/2016 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2016ko otsailaren 10eko EHAAren (27. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haren baldintza profesionalak *curriculum vitae*an jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Juan Luis Sánchez González de Matauco jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Juan Luis Sánchez González de Matauco jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Errioxa - Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako adjuntuaren lanpostu funtzionalaren 2494 plazaren jabea dena, Arabako Errioxa - Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu behar da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela eta, zuzendaritza nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Juan Luis Sánchez González de Matauco jauna izendatzea Arabako Errioxa - Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera emango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Juan Luis Sánchez González de Matauco jauna zerbitzu berezietan deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.